



---

**Ordaineko industrigintza**  
**Las industrias de repuesto**

José Manuel Azcona

---

Balmasedako hiriak XX. mendean zehar izan dituen ekonomi-kapitulu denak artikulatu bakar batean barrusartzea ez da zeregin erraza. Hala da, mende honetan zehar balmasedar mertakaritza arloen azterketa sakona -besterik gabe- egiteak, doktoretza-tesi oso baterako gaia izango litzateke. Hau dela eta, ekonomi-erakusle gisa, Enkarterrietako hiri honetako industriaren bilakaera ezagutzera emango diguten lau parametro hartuko ditugu. Honela, bada, «Boinas La Encartada», «Siderurgia del Norte», «Talleres Fabio Murga» enpresen gorabeherak aztertuko ditugu, honetaz gain, balmasedar haltzariaren industriak izan duen ekonomiazko bilakaeraz ere zerbait esango dugula.

«Boinas La Encartada», Marcos Arena (1) balmasedarraren eraginez, 1892. eko Urtarrilaren 14an sortu zen, honek, ehun-anaidiko elkarte ingeles batekin lankidetzan, txapelak, txotak, mantak eta abarrekoak egitea erabaki zuela. Garai hartan, txapela oso erabilia zen euskaldunen aldetik. Hasieratik bertatik, lantegiak argindarra izan zuen, 125 C.V.-ko indarra zuen Kadagua ibaiaren gaineko ur-jauzi bat zuelako. Era honetara, bai makinariako eta bai argiketarako beharrezkoa zen argindarra bere esku zuen.

Ehun urte hauetan zehar, lantegiak ekonomiazko zenbait gorabehera izan ditu. Gaur egun, enpresak, oinarrizko 2.600 metro karratuzko eraikintza baten gaineko altuerazko hiru solairu dituen industri-pabiloi bat du, eraikitako azalera osoa 6.276 metro karratuzkoa delarik. Zientziaren alorrean aurrerakuntzak izan badira ere, produktoa egiteko teknikak, XIX. mendean hasieran industriarekin hasi zenaren garaikoak bezelakoak dira. Gaur egun, lantegia aintzinako gaien museo batean bihurtu dela esan genezake. Industri Iraultzaren

*Activar en un artículo todos los capítulos económicos de la villa de Balmaseda a lo largo del siglo XX no es tarea fácil. En efecto, constatar los aspectos mercantiles valmasedanos durante la presente centuria sería motivo para desarrollar -por si sólo- una tesis doctoral. Es por ello que vamos a tomar cuatro parámetros que, a modo de indicadores económicos, sirvan para conocer cual ha sido el deambular industrial de la villa encartada. Estudiaremos, pues, las bienandanzas y fortunas de «Boinas La Encartada», «Siderurgia del Norte», «Talleres Fabio Murga», y comentaremos también cual ha sido el tránsito económico de la industria del mueble balmasedano.*

*«Boinas La Encartada», se fundó el 14 de enero de 1892 por iniciativa del valmasedano Marcos Arena (1), quién, en colaboración con una sociedad inglesa del gremio textil, decidió fabricar boinas, viseras, mantas, etc. Eran tiempos en los que la boina tenía gran aceptación entre la población vasca. La factoría contó desde sus inicios con suministro de energía eléctrica, puesto que poseía un salto de agua sobre el río Cadagua con potencia de 125 C. V. De esta manera se podía autoabastecer de la electricidad necesaria para el funcionamiento de la maquinaria y alumbrado.*

*A lo largo de estos cien años de andadura, la fábrica ha pasado por diversas etapas de altibajos económicos. En la actualidad la empresa posee un pabellón industrial con tres plantas de altura sobre una edificación de 2.600 metros cuadrados de base y una superficie total edificada de 6.276 metros cuadrados. A pesar de los avances de la ciencia, las técnicas de elaboración del producto se han mantenido tal y como eran al comienzo de la apertura de la industria a fines del siglo XIX.*



Selfactina 'La Encartada, S. A.'-n.

hasierako eskulangintzako egiaz-ko lantegi bat izango balitz legez, erabiltzen diren lehen gaien kalitatea, kasu honetan artilearena, Tarrasa-tik ekarten denetik eta aldakuntzarako prozesu luze osoan zehar, kontu handiz zaintzen da gaur egun ere.


«Boinas La Encartada» dihardueneko merkatua ez da Euskal Herrira mugatzen, Galicia, Cataluña, Cantabria eta Gaztelerriko zati batean ere saltzen dituela. Inoiz, Alemania eta Nueva York-era ere esportatu egin dira txapelak baina, merkaturik onena, espainiar iparraldean dago.

«Talleres de Fabio Murga, S.,A.», Fabio Murga Acebel balmasedarraren eskutik, 1934. urtean sortu zen. Honek, Bilboko Industri Ingeniarrien Eskolan graduatuz gero, bere lantegia jaio zen herrian jartzea erabaki zuen. Hasiera batean, soldadura bidezko elektrodoen arloan aritu zen baino geroago, merkuriorako ontzien edo presiozko gas likidoentzako botilen arloan aldatu zen. Geroago, gaiak urtzeari, kamisak zentrifugatzeari eta granaillei ekin zien, azken iharduera honen bidez enpresak ospea lortu zuelarik.

Fabio Murgak, enpresarako ekimen gaile-naz, lantegiaren zuzendaritzan jarraitu zuen

*Podemos afirmar que hoy en día la factoría se ha convertido en un museo. Como si se tratara de un auténtico taller artesanal de los inicios de la Revolución Industrial, se sigue cuidando al máximo la calidad de las materias primas utilizadas, en este caso la lana, que se trae de Tarrasa para iniciarse en la fábrica el largo proceso de transformación.*

*El mercado sobre el que opera «Boinas La Encartada» no se limita al País Vasco, sino que también vende a Galicia, Cataluña, Cantabria y parte de Castilla. Alguna vez se han exportado boinas hacia Alemania y Nueva York aunque el mercado más suculento se encuentra en el norte peninsular.*



Canillero en La Encartada, S. A.

*«Talleres de Fabio Murga, S.A.», fueron fundados en 1934 por el valmasedano Fabio Murga Acebal. Fue en este año cuando, tras graduarse en la Escuela de Ingenieros Industriales de Bilbao decidió montar su propia fábrica en el pueblo que le vio nacer. Al principio orientó su empresa hacia el negocio de electrodos de soldadura, para luego dedicarse a los frascos para mercurio o las botellas para gases líquidos a presión. Más tarde se dio comienzo a la fundición de piezas, al centrifugado de camisas y a las granallas, actividad ésta con la que la empresa adquirió notoriedad.*

hil zeneko 1969. urterarte. Bere suina zen José Antonio Amann Machín-ek ordeztu zuen. Bere agindupean egin zen industri-solairu berria, zabalkunderako ere asmo ederrak taiutu zirela. Hil zeneko 1983. urtetik aurrera, lehendakari legez bere lanpostua M<sup>a</sup> Luisa López-ek, ordezkaturako kontseilari legez M<sup>a</sup>



Merkurizko ontziak. Fabio Murga tailerrak.

Carmen López-ek eta, zuzendari orokor legez, Juan José Larreak hartu zuten.

«Siderurgia del Norte», 1949.eko Abenduaren 31an sortu zen, «Boinas La Encartada»-k 'El Peñueco'-n (2) zituen 55.000 metro karratu erosi ondoren. Beti beharrezkoa gertatzen zen argindarra lortu ahal izateko, hiru urjauzi txiki eskuratu ziren Mena-ko Haranaren inguruan. Lantegia Balmasedan ezarri zen, neurri handi batean, Enkarterrietako Hiri honen trenbideen gurutzaketei gagozkiela duen kokapen ezin hobegatik.

Berrogeitahamar hamarkadan, burnizko karbuoaren eta argindarraren ekoizpena hasten da. Zenbait urte geroago, ereduizko barrak egiten jarraitu zen, hau, beste industri-arlo ezberdinen artean, berebilarenean erabiltzen dela. Geroago, mota eta aberastasun-maila ezberdinekin, ferrosilizeo eta ferromanganeso bezelako ferroaleazioak egiten hasi ziren, berrogeitahamar hamarkadaren amaieran ferrokromo gogorra eta silikomanganeso egiten jarraitzeko. Manganeso mea, batez ere, Huel-

*Fabio Murga, con notable espíritu empresarial mantuvo la dirección de la factoría hasta su fallecimiento en el año 1969. José Antonio Amann Machín, su hijo político le sucedió al fundador. Bajo su mandato se creó la moderna planta industrial, y se desarrollaron ambiciosos planes de expansión. Tras su muerte*



Fragua de Talleres Fabio Murga.

*en 1983, ocupó su puesto M.<sup>a</sup> Luisa López como presidenta, M.<sup>a</sup> Carmen Murga se hizo con el puesto de consejera delegada y Juan José Larrea ocuparía el cargo de director general.*

*«Siderurgia del Norte», nació el 31 de diciembre de 1949, después de la compra de 55.000 metros cuadrados que «Boinas La Encartada» tenía en el Peñueco (2). Tres pequeños saltos en la zona del Valle de Mena fueron adquiridos para conseguir el siempre apetecido suministro eléctrico. La factoría se instaló en Balmaseda, en buena medida, por la situación privilegiada de la villa encartada en lo que a cruce de trenes se refiere.*

*En la década de los cincuenta se comienza la producción de carburo metálico y de energía eléctrica. Algunos años más tarde se continuó con la elaboración del lingote de moldería, materia prima usada, entre otras ramas industriales, en el sector del automóvil. Posteriormente, se inició la fabricación de ferroaleaciones, tales como, ferrosilíceo y ferromanga-*



va-tik etorten zen, Kongo eta Egipto-tik inportatzen baldin bazen ere.

Hirurogei hamarkadan, galtzairua ikatz erara egiteko asmotan, galtzairuzko argindarrezko labe bat montatu zen. Garai honetan, enpresak, etxegintzarako biribila eta erpinengo egiteko iraitze-bide bat ere jarri zuen. Hirurogeitahamar hamarkadan, «Siderurgia del Norte»-k labe handiago bat sartu zuen bere ezarkinetan. Garai hartarako oso aurrerakoa izanik, burnizko barra nahastatuak egitea bideratzen zuen alemaniar 'Yunquer' bat zen. Larogei hamarkadan lantegiaren ezarkinak deuseztatu egiten dira, ekoizpena utzirik. Erabilgarriak ziren gai denak eta, batez ere, labeak, saldu egin ziren.

«Siderurgia del Norte» lantegia sortu zen garaian, galda guztietarako «régimen de cupos» izeneko sistema eta baita erakunde arauemale bat ere zegoen, DOEIS laburduraduna, honek, galda ezberdinen ekoizpena antolatu eta gidatzen zuela, beste era batera esateko, Euskal Herriko Labe Handiak bezelako beste lantegietara bidali behar ziren gaien kopurua ezartzen zuela. Honen ondorioz, bizkaitar galdeen ekoizpena eskatzaileak ziren beste industrietarantz arautua eta zuzendua gelditzen zen aldi berean, «régimen de cupos» delakoak, elkarren arteko lehiak neurri bateko kontrolpean jartzen zituela ulertu genezake. Egoera hau harrigarri legez agertzen zaigu XX. mendean, zeren eta aintzinako mendeetako anaidien arteko loturak go-goerazten baitizkigu.

Industria hau larogei hamarkadan ekoizpenari uzteko arrazoirik garrantzizkoena, energiaren garestitzea dugu. Honela, berrogeitahamar urteetatik larogei urteetara bitartean, energia, salmentaren gainean %10a suposatsetik, %40 edo 50a suposatzera aldatzen da. Gainera, Brasil, Polonia eta Errusia bezelako atzerriko herrialdeak gai merkeagoak ekoizten hasi ziren, elkarren arteko lehia gogorragoa egin zelarik. Baita ere, azken urteetan unitate handien kontsumoak jeitsi egin ziren.

*neso en diferentes variedades y riquezas, para seguir a fines de los cincuenta con la producción de ferrocromo duro y silicomanganeso. El mineral de manganeso llegaba, principalmente, de Huelva aunque también se importaba del Congo y Egipto.*

*En la década de los años sesenta se montó un horno de acero eléctrico con el objetivo de fabricar aceros al carbón. En este periodo, también la empresa incorporó un tren de laminación para hacer redondo de construcción y angulares. Entrados los setenta, «Siderurgia del Norte» introdujo en sus instalaciones un horno mayor. Se trataba de un Yunquer alemán sofisticado para aquellos años. De esta manera se podía elaborar lingote de hierro aleado. Ya en los años ochenta se desmantelan las instalaciones de la factoría, por lo tanto se deja de producir. Todos los materiales y sobre todo los hornos, que podían ser aprovechables, son vendidos.*

*En los tiempos en los que se fundó la fábrica «Siderurgia del Norte» existía para, todas las fundiciones «el régimen de cupos», así había un organismo regulador, cuyas siglas eran DOEIS, el cual organizaba y orientaba la fabricación de las distintas fundiciones, es decir, estipulaba la cantidad de productos que tenían que enviar a otras factorías, tales como Altos Hornos, del País Vasco. De ello se pudiera entender, que al mismo tiempo que la producción de las fundiciones vizcaínas quedaba regulada y dirigida hacia otras industrias demandantes, también, el «régimen de cupos», en la práctica, frenaba o al menos controlaba la competencias. Esta situación no deja de sorprender en pleno siglo XX puesto que nos recuerda a los entramados gremiales de centurias anteriores.*

*La razón principal por la que la industria deja de producir en los años ochenta es, sobre todo, el encarecimiento de la energía. Así desde los años cincuenta hasta los ochenta, la energía pasa de constituir el 10 % sobre el precio de venta a representar el 40 ó 50 %. Además, terceros países como Brasil, Polonia*

Bere garairik onenean, lantegian 200 langiletik gora zeuden, hirurogei hamarkadan iraitzeari eta galtzairuzko labeari utzi egin zitzaientzen, egin zen langilegoaren murriztapenaren ondorioz, 140 bat langile geratu zirela. Enpresa utzi zeneko aurreko urteetan, langileak ez ziren hirurogei baino gehiago.

Balmasedar haltzariaren industriak, guda zibila amaituaz gero, 1940. urtean, 11 lantegi zituen eta, honekin batera, baita oso ikuspegi ona ere, zeren eta Zarautzek eta Oriok bakarrik egiten baitziren lehia balmasedar haltzarigileei (3). Berrogeitahamar hamarkadararte, Enkarterrietako hiri honetan egiten ziren haltzari denak banan banako eskaeraren bidezkoak ziren, hauek gehien eskatzen ziren denboraldia 1953 eta 1960. urte bitartekoa izan zelarik. 1961. urtetik 1970. urtera bitarteko denboraldian, eskaintza zeharo ugari, ekoizpena geldierazi eta errenkadazko lanarekin hasi zen. Hirurogeitahamar hamarkadatik hona, balmasedar haltzarigintza krisialdian dagoela esan genezake.

Hirurogei hamarkadaren 'boom'-erarte, haritza, pagoa eta baita egur larrosa eta ginea bezelako tropikozko zureak erabiliz lanegiten zen, lan hau eskulangintzarik garbienean garatuaz. Geroago, makala eta pinua ere sartu ziren, gaur egun fibrak eta konposatu sintetikoak nagusitu direla. 1960. urtetik aurrera, garaiko eskaera handiaren ondorioz, haltzari merkeak eta egiterrazak egin ahal izateko lantoki, makineri eta abarretan inbertsio garrantzizkoak egin ziren. Honen ondorioz, bezero bakoitzaren eskaria nagusitzen zen haltzarigintzaren eskulangintza desagertu egin zen. Hirurogeitahamar hamarkadan gertatu zen ekonomiazko atzerakada gogorrak, orduarte haltzarigintzan erabiltzen ziren tresna eta teknologiaren berriztapena eragotzi egin zuen. Alorreko krisialdiak, ondorio gisa, lantegien langilegoaren murriztapena sorrerazi zuen, honek, zenbait lantegitan langilegoaren %50 eta kopuru handiagoei ere eragin ziola. Gaur egun, enpresazko nolabaiteko egonkortasuna dutenak, alorraren barruan iraun ahal izateko kostuetan arrisku gehiegirik jasaten

*y Rusia comenzaron a fabricar productos más baratos por lo que la competencia aumentó. También en los últimos años bajaron los consumos específicos de unidades grandes.*

*En sus mejores momentos la fábrica contó con un número de operarios que sobrepasaba los 2.200, en la década de los sesenta se paró la laminación y el horno de acero llevándose a cabo la reducción de la plantilla quedando ésta en unos 140 obreros. En los años precedentes al cierre de la empresa el número de empleados no superaba los sesenta.*

*La industria del mueble valmasedano tras la Guerra Civil contaba en 1940 con 11 talleres, y en principio un panorama halagüeño ya que tan sólo Zarautz y Orio hacían la competencia a los mueblistas valmasedanos (3). Hasta los años cincuenta todos los muebles que se fabricaban en la villa encartada eran por encargo. Los tiempos de mayor demanda hay que situarlos entre 1953 y 1960. En el periodo comprendido desde 1961 a 1970 la oferta aumentó extraordinariamente, y se produjo el estancamiento de la producción iniciándose el trabajo en serie. A partir de la década de los setenta hasta nuestros días se debe hablar de crisis del sector.*

*Hasta el boom de los sesenta se trabajaba con roble, haya, e incluso maderas tropicales como el palo rosa o la guinea utilizando técnicas de auténtica artesanía. Posteriormente se introdujo el chopo y el pino. En la actualidad priman las fibras y los compuestos sintéticos. A partir de 1960 la abundante demanda propició las inversiones en locales, maquinaria, etc, destinada a producir muebles baratos y de rápida ejecución. De esta manera, el ingrediente artesanal en la elaboración, en la que prevalecía el gusto particular e individualizado del cliente, desapareció. La recesión aguda de los años setenta imposibilitó la renovación de los útiles y tecnologías empleados hasta aquel tiempo en la fabricación del mueble. La crisis dentro del sector inevitablemente arrastró tras de sí la reducción de plantillas que en algunos talleres afectó al 50% del personal, e incluso a*

ez duten famili erako enpresa txikiak dira, hauek, gehienetan eskaeraren bidezkoak diren haltzari kopuru txikiak egiten dituztela.

*porcentajes aún más elevados de operarios. Hoy en día tan sólo gozan de una cierta estabilidad empresarial los reductos o pequeñas empresas de carácter familiar que en pro de poder sobrevivir dentro del sector no arriesgan demasiado en costos trabajando series muy cortas, en la mayoría de las ocasiones por encargo.*

#### OHARRAK

1. Datu hauek, 1991.eko Ekainaren 25ean Miren Bilbao Notario ikerlariak Gonzalo Reister-eri egin zion elkarrizketaren ondorioz lortu izan dira.
2. Miren Bilbao Notario ikerlariak 1991.eko Ekainaren 24an José Luís Lekandari egin zion elkarrizketan jasotako informazioa.
3. Ignacio Acasuso-k Koldo Zulaikari 1991.eko Ekainaren 27an egin zion elkarrizketan jasotako informazioa.

#### NOTAS

1. *Datos conseguidos tras la entrevista que la investigadora Miren Bilbao Notario, realizó a Gonzalo Richer el 25 de Junio de 1991.*
2. *Información conseguida durante la entrevista que la investigadora Miren Bilbao Notario realizó a José Luis Lecanda el 24 de Junio de 1991.*
3. *Información conseguida por Ignacio Acasuso en la entrevista a Koldo Zulaika el 27 de junio de 1991.*